

NAASIÑ



Naásiñ: *adb.* Nahasian./ *Naasiñ.* Nahasian. (JBA, 1999-11-27)/ *Naasiñ al dare?* Nahasian al daude? (JBA, 2006-02-11)

Naásteri, naásterie: *iz.* Nahasteria, gauza nahastua./ *A ze naasterie!* A ze nahasteria! (Behar bezain argi ez den gai baten gainean) (JBA, 2000-04-15)/ *Naasterin bat itteko.* Nahasteriaren bat egiteko. (Belar ezberdin batzuk sendagaiak lortzeko nola nahasten diren adieraziz) (JBA, 2005-05-21)

Naástu: *ad.* Nahastu./ *Naastu.* Nahastu. (JBA, 2000-03-25)/ *Zazpi bedar klase nastuta.* Zazpi belar klase nahastuta. (Sendagai baten osagaiak) (JBA, 2006-05-29)

Naástu, naástue: *iz.* Nahastua./ *Naastue.* Nahastua. (Gasolina eta oiloz osatutako nahastura baten gainean) (JBA, 2000-08-22)

Nabaittu: *ad.* Nabaritu./ *Nabaitzen da.* Nabaritzen da. (MUA, 2005-02-04)

Nabármén, nabárména: *izond.* Nabarmena./ *Nabarmén.* Nabarmén. (JBA, 1999-08-14)

Nabárméndu: *ad.* Nabarmendu./ *Nabarméndu.* Nabarmendu. (JBA, 2001-11-03)/ *Nabarménduta.* Nabarménduta. (JBA, 2008-07-19)



› **NAPARRO.** Nafarroako Zubieta herria. (AA, 2008-06-29)



› **NARRA.** Adarrez egindako narra. (AA, 2008-12-30)

Nabárménzio, nabárménzio: *iz.* Nabarmenkeria./ *Olako nabarménzioik.* Horrelako nabarmenkeriarik. (JUA, 2001-12-15)

Nágau: *ad.* Nazkatu./ *Nagau eitten.* Nazkatu egiten. (Mariaje UB-k entzuna: Jesusa BA, 2005-07-27)/ *Nagau hitzak nazkatu adierazten du: Nagauta nau gauza ori jaten... nazkauta esan bearren.* (JBA, 2005-08-06)

Nagi-aldi, nagí-aldie: *iz.* Nagi aldia./ JBA-ren ustez, egun batzuetan halako *nagi-aldik* izaten dira eta beste batzuetan, urrutiko lanak egiteko gogoia ere izaten omen da. (JBA, 2002-09-14) (sinonimoa **Alperraldi**)

Nagik atéa: *ad.* Nagiak atera./ *Nagik atea.* Nagiak atera. (Elena UB, 1999-10-14)

Nagúsi, nagúsie: (ik. **Nausi**, bi adierak)

Nai: **1.** *ad.* Nahi./ *Emendí nai zue jan?* Hemendik nahi duzue jan? (JBA, 2004-02-21)/ *Etxek in nai baittu're bai.* Etxeak egin nahi baditu ere bai.¹²⁴ (Iraulikaren gainean) (JUA, 2004-04-10)/ *Bakaziok artu naien.* Oporrak hartu nahian. (JUA, 2004-08-10)/ *Biar nai diana iñ.* Bihar nahi duana egun. (JBA, 2004-09-18)/ *Utzi nai ez-ta.* Utzi nahi ez-eta. (JBA, 2006-01-07)/ *Naiao luke batez eiñ!* Nahiago luke batez egin! (JBA, 2006-02-11) **2.** *ad.* Maite./ *Nai daok umei.* Nahi zio kumei. (Txakurrak bere kumeekiko duen maitasuna azaltzeko) (JUA, 2001-07-14)/ *Nei nai zan-da.* Ni nahi zidaan-eta. (Maite adieran esanda) (JUA, 2004-06-19)/ *Gaizki nai duenak.* Gaizki

¹²⁴ Berriemaile honekin batzuetan suertatu da hau. Desagertua den gauza batek zertarako balio zuen adierazten duenean, hirugarren pertsona baten ekintza bat adieraziz erantzuten du, aditza + nahi + baldintzazko aditz laguntzailea batuz. Gainera, lehenaldian ez, orainaldian ematen du erantzuna.

nahi dutenak. (Besteen kaltea nahi dutez) (JBA, 2007-12-15)

Nai, naie: *iz.* Nahia./ *Mermeladea dezu naian?* Mermelada duzu nahien? (JBA, 1999-09-08)/ *Naiao.* Nahiago. (JBA, 1998-06-27)

Naiko, naikoa: *zenbtz.* Nahikoa./ *Naikoa.* Nahikoa. (JUA, 1998-08-11)/ *Atzo naiko eurie.* Atzo nahikoa euria. (JUA, 2001-10-06)/ *Zeati naikoa bero neuken.* Zergatik nahikoa bero neukan. (JBA, 2004-03-01)

Naiz: *Nahiz.* *Naiz etxea txarra izan, bee etxea.* Nahiz etxea txarra izan, bere etxea. (JBA, 2004-05-22)

Náno, nanóa: *izond.* Nanao.

Nanótu: *ad.* Nanotu./ *Nanotuta.* Nanotuta./ *Eskuetan-eta ibili ohi diren katuak nanotu egiten omen dira eta gero ez dute ehizarako balio.* (JUA, 2000-12-02)/ *Nanotuta.* Nanotuta. (JBA, 2003-12-13)

Nápar, naparra: **1.** *iz./adj.* Nafarra, Nafarroa herrialdekoa./ *Naparrak.* Nafarrak. (JUA, 1999-06-05)/ *Nápar oikin.* Nafar horiekin. (JBA, 2004-03-21)/ **2.** *iz.* Nafarra, patar mota./ *Naparra.* Nafarra. (JBA, 2003-08-16)

Naparréri, naparrérie: *iz.* Nafarrerria, gaitz mota./ *Naparrérie.* Nafarrerria. (Behien bidez harrapatzen da gaitz hau) (JUA, 1999-03-20)

Napárrro: *Topo.* Nafarroa, Euskal Herriko herrialdea./ *Napar-aldean.* Nafarroa aldean. (JBA, 2002-01-06)/ *Napar barrenen.* Nafarroa barrenean. (Nafarroaren hegoaldea adierazteko) (JBA, 2006-05-29)

Nar, nárra: *iz. Tre.* Narra, behean adar nagusi bat jarri eta gainean zama jarriz osatzen den egitura. Horrela, beheko adar nagusiarri tira eginda multzo guztia mugitzen da. Aldapa beheara adarrak-eta, belarra-eta... ekartzeko balio du/ *Narrai tira itten lumbago.* Narrari tira egiten lumbago. (JUA, 2001-11-02)

Naránja, naránjea: **1.** *iz. Bot.* Laranja, fruitu mota./ **2.** *iz./izond.* Laranja./ *Naránja kolorea dauke.* Laranja kolorea dauka. (Lore mota batek) (JBA, 2003-02-15)

Narraide, narraidea: *iz.* Narraidea, itxura./ *Narraide onen dare beorrak.* Narraide onean daude behorrak. (Itxura ona dutela, batez ere haragiz osatuak) (JBA, 2008-07-20)

Nárras: *adb.* Narras./ *Tripea oso narras behera.* Tripa oso narras behera. (Itxuraz ahurdun zen katu baten gainean) (JBA, 2004-11-06)

Nárras, narrása: *izond.* Narrasa./ *Narrasa.* Narrasa. (Ernari dagoen katuaren itxuraren gainean) (JBA, 1999-04-06)/ *Narrasagok die!* Narrasagoak dira! (Txakurren gainean esana) (JBA, 2002-05-13)/ *Narras.* Narras. (JBA, 2004-06-12)/ *Narráza.* Narrasa. (Jarrera desegokia eta utzia duen pertsona baten gainean. Harrigarria bada ere, Z hizkiak jaso dugu; hiru aldiz jarraian eta garbi-garbi, hala esan du) (JBA, 2006-02-11) (aldaera **Narráz**)

Narraskéri, narraskérie: *iz.* Narraskeria./ *Eunduko narraskérin.* Egundoko



› **NARRASA.** Katu emea ernari. (AA, 2006-09-09)

narraskerian. (Inguruko lokatzaren gainean) (JBA, 2009-01-31)

Nárraz, narráza: (ik. **Narras**, izenondoa)

Nárru, narrúe: *iz.* Larrua./ *Narrue.* Larrua. (Azeri larruaz esana) (JBA, 1998-10-31)/ *Aingirarena ere narrue da.* (JUA, 1998-12-19)/ *Zapo eta igelen azala ere narrue da.* (JBA, 2003-04-26)

NARRUE JO: *ad.* Larrua jo./ *Narrue jo.* Larrua jo. (JUA, 2004-08-11)

NARRUK BETE JAN: *ad.* Larruak bete jan, asko jan./ *Narruk bete jan.* Larruak bete jan. (Bazkari garaian esana) (JUA, 2000-05-06)

Narrútu: *ad.* Larrutu./ *Narrutu.* Larrutu. (ik. **Axari-arrapatzaile**) (JBA, 2002-10-06)/ *Narrutu.* Larrutu. (Katagorriaren gainean) (JBA, 2007-09-29)

Natibitate: *iz. Erl.* Natibitate eguna./ *Natibitate.* Natibitate eguna. (JBA, 2006-01-07)/ *Natibitate.* Natibitate eguna. (JBA, 2006-12-16)

Natille, natillea: *iz.* Natila./ *“Arroz con leche”... Gozogoia zian natille... Natillei... “Arroz con leche” eosiko balin bazan.* Arrozoesnea... Gozoagoia zian natila... Natilari... Arrozoesnea egosiko balin bazen. (Lehengo sukaldean arrozoesnea egitean kearra erortzeko arriskua izaten zen) (JUA, 2004-08-29) (•)

Natúal, natúala: (ik. **Natural**, bi adierak)

Natúral, natúrala: **1.** *izond.* Naturala, normala./ *Etzan baiño naturala mutill ura.* Ez zen baina naturala mutill hura. (JUA, 2000-08-22) (aldaera **Natural**) **2.** *izond.* Naturala, berezkoa./ *Ura izango zan natural.* Hura izango zen natural. (Artzain txakur bat erabat arrazakoa izango zela) (JBA, 2003-10-11) (aldaera **Natural**)

Nausi, nausie: **1.** *iz.* Nagusia, jabea./ *Beor nausie.* Behor nagusia. (JBA, 2003-12-28)/ *Fabrika nagusi.* Fabrika nagusi. (JBA, 2005-03-26) (aldaera **Nagusi**) **2.** *iz.* Etxenagusia./ *Bi nausi darek.* Bi nagusi zeudek. (Brinkolako etxenagusiak aipatuz) (JUA, 2002-06-15) (aldaera **Nagusi**)

Názka, názkea: *iz.* Nazka./ *Nei nazkea ematen dit.* Niri nazka ematen dit. (JBA, 2004-01-10)/ *Nazkea eman dio.* Nazka eman dio. (JBA, 2005-04-30)/ *Nazkea ematen dola.* Nazka ematen duela. (Sugearen gainean esana) (JUA, 2000-08-27)/ *Nazkántza.* Nazka antza. (JBA, 2005-05-07)/ *Nazka.* Nazka. (JBA, 2006-02-11)

Nazkagarri, nazkagarrie: *izond.* Nazkagarria./ *Nazkagarri zikiñek.* Nazkagarri zikinak. (Txakurren gainean esana) (JBA, 2002-05-13)/ *Nazkagarri majoa.* Nazkagarri majoa. (Zikindutako leku baten gainean) (JBA, 2004-08-13)/ *Nazkagarri zikiñe.* Nazkagarri zikina. (Mahaira igo nahi duen katu baten gainean) (JBA, 2004-12-04)/ *Nazkagarrie.* Nazkagarria. (JBA, 2006-02-11)

Názkau: *ad.* Nazkatu./ *Nazkauta.* Nazkatuta. (JBA, 1999-05-21)

Néar, neárra: *iz.* Negarra./ *Near.* Negar. (Gela batean itxitako txakur baten gainean)/ *Aske ohituta dauden txakurrek negar egin ohi dute, lotuak edo gelan itxita daudenean.* (JBA, 1999-09-11)/ *Near itte al do orrek e?* Negar egiten al du horrek ere? (JBA, 2004-10-02)/ *Juteko pozez near in non.* Joateko pozaz negar egin nuen. (JBA, 2008-08-21)

Neargarri, neargarrie: *izond.* Negargarria./ *Neargarrik ein tzien.* Negargarriak egin ziren. (JBA, 2007-05-26)

Négu, negúe: **1.** *iz.* Negua./ *Negue.* Negua. (JUA, 1999-10-23)/ *Negurako.* Negurako. (JUA, 2004-04-10) **2.** (ik. **Negu-madari**)

NEGU-
MADARI

Negú-madari, negú-madarie: *iz. Bot.* Negu madaria, madari mota./ *Negu-madarie.* Negu madaria. (JBA, 2003-02-15)/ *Negue ez da izango.* Negua ez da izango. (Negu madaria) (JBA, 2008-04-04)/ *Negu-madarie.* Negu madaria. (JBA, 2008-09-26)/ (aldaera *Negu*, bigarren adiera)



› **NEGU-MADARIE.** Negu madariak. (AA, 2008-09-26)

Nékau: *ad.* Nekatua./ *Nekauta.* Nekatuta. (MUA, 2003-04-11)

Nekau, nekaue: *iz.* Nekatua./ *A ze nekaue artu zenduen.* A ze nekatua hartu zenuen. (JBA, 2006-06-03)/ (sinonimoa *Nekaualdi*)

Nekaualdi, nekaualdie: *iz.* Nekatua./ *Nekaualdi galantak.* Nekatua aldi galantak. (JUA, 2000-07-01)/ (sinonimoa *Nekau*, izena)

Nekázari, nekázarie: *iz.* Nekaz. Nekazaria./ *Nekazarie.* Nekazaria. (JUA, 2002-05-04)

Nekázarritza, nekázarritza: *iz.* Nekaz. Nekazarritza./ *Nekazarritza.* Nekazarritza. (JUA, 2002-05-04)

Néke, nékea: *iz.* Nekea./ *Nékea.* Nekea. (JUA, 1999-08-19)/ *Nekek itten.* Nekeak egiten. (JUA-k JBA-ri esana, hau lehenengoari alferrikako lana iruditzen zitzaiona egiten ari zelako) (JUA, 2000-06-06)/ *Oik'e nekea ebaliko due.* Horiek ere nekea erabiliko dute. (Goldeari tira egiten ari diren bi mando ikusita) (JUA, 2002-10-26)/ *Nekeko lana.* Nekeko lana. (JUA, 2003-08-31)

Nékez: *adb.* Nekez./ *Gatzagin nekez illeik eongo an.* Gatzagian nekez ilerik egongo den. (JUA, 1998-08-06)/ *Onezkeo nekez agertuko a txakurre.* Honezkero nekez agertuko da txakurra. (JUA, 2004-05-20)/ *Ta orti beera seittun bajatzen tzan, igo nekezago baiño.* Eta hortik behera segituan jaisten zen, igo nekezago baina. (JBA, 2003-03-21)/ *Ona gutxigo, nekezago aillatzen da.* Hona gutxiago, nekezago ailegaten da. (JBA, 2004-08-10)/ *Tratorea're nekez artu zon.* Traktorea ere nekez hartu zuen. (JBA, 2005-02-04)/ *Nekezan usteldu.* Nekezen usteldu. (Sagar mota batek irauteko duen ahalmenaren gainean) (JBA, 2006-10-14)

Nekóso, nekósoa: *izond.* Nekosoa./ *Nekosoa.* Nekosoa. (Lan nekoso baten gainean) (ik. *Euzkitza-Bekoa*) (JUA, 1999-05-29)/ *Iruitzen bazako nekosoa dala, fuera!* Iruditzen bazaio nekosoa dela, kito!

(Txakurraren joeren gainean) (JBA, 2003-07-26)

Neózio, neózioa: *iz.* Negozioa./ *Neozio.* Negozio. (JUA, 2002-06-01)

Nerbiok euki: *ad.* Nerbioak eduki, buruko gaitzen bat izan./ *Nerbiotati.* Nerbioetatik. (Pertsona bat nerbioetatik dagoenean buruko arazoak izan ditzakeela esan nahi du) (JBA, 2008-07-19)

Nerbioso: *adb.* Urduri./ *Nerbioso.* Urduri. (JBA, 2007-05-12)

Néska, neskéa: *iz.* Neska./ *Neska mutiko oik.* Neska mutiko horiek. (JBA, 2000-12-02)/ *Neskea falta.* Neska falta. (JUA, 2004-08-10)/ *Izan tzon neskatan umea.* Izan zuen neskatan umea. (JBA, 2007-10-26)

NESKA EIN: *ad.* Neska egin, hazi./ *Neska ta motill ein die-ta.* Neska eta mutil egin dira-eta. (Hazi egin direla adieraziz) (JBA, 2002-01-06)

Neská-launtza, neská-launtzea: *iz.* Neská laguntza./ *Neska launtzea.* Neská laguntza. (JUA, 1998-08-14)

Neskáme, neskámea: **I.** *iz.* Neskamea./ *Neskamea.* Neskamea. (JUA, 1999-05-21)/ **2.** *iz. Tre.* Sukalde zaharretako tresna, bere gainean *sartaiñe jartzeko* balio duena./ *Neskamea.* Neskamea. (JBA, 1998-02-12)/ (sinonimoa *Trebera*)

Neskátilla, neskátilla: *iz.* Neskátilla./ *Neskátilla batek.* Neskátilla batek. (JBA, 1999-10-23)

Neskázar, neskázarra: *iz.* Neskazaharra./ *Neskazarrak.* Neskazaharrak. (JUA, 2004-04-10)

Neskázartu: *ad.* Neskazahartu./ *Neskazartzen.* Neskazahartzen. (JUA, 2001-12-01)



› **NESKAMEA.** Neskamea, sukalde zaharretako tresna. (AA, 2006-03-04)

Néto, nétoa: *izond.* Erabatekoa. (Artzain txakur baten gainean dio ea *netoa* den, hau da, erabat arrazakoa ote den ala nahasketa) (JBA, 2003-10-11)

Neu: *izond.* Neu./ *Neuk.* Neuk. (JBA, 1998-07-12)/ *Neuk.* Neuk. (JBA, 1999-06-05)/ *Neuk... neuri.* Neuk neuri. (JBA, 2000-04-28)/ *Neureti pixkat.* Neuretik pixka bat. (JBA, 2000-11-04)/ *Neurea.* Neurea. (JBA, 2001-09-08)/ *Neuri.* Neuri. (JBA, 1999-01-01)/ *Beittu neuri.* Begiratu neuri. (JUA, 1999-12-11)/ *Neutako.* Neuretzako. (JBA, 2004-02-21)/ *Neu bakarrik.* Neu bakarrik. (JBA, 2004-03-21)/ *Neuk, neuk, neonek.* Neuk, neuk, neronek. (JBA, 2004-06-26)/ *Eingo et neuk.* Egingo dut neuk. (JBA, 2005-02-19)

Neurri, neurrie: *iz.* Neurria. Landatu beharreko zuhaitzen arteko distantzia ezartzeko makilari esan dio *neurrie* hitza. (JBA, 2000-03-03)/ *Neurrira.* Neurrira. (JUA, 1999-01-23)/ *Ze neurritan behar do goikoa?* Ze neurritan behar du goikoa? (JBA, 2006-02-11)/ *Bi o iru neurrítakok.* Bi edo hiru neurrítakok. (JBA, 2006-08-12)



› **NIBELA.** Hargintza lanean erabiltzen den eraikuntza erreferentzia, soka bidez. (AA, 2005-08-13)

Neurtu: *adb.* Neurtu./ *Neurtu.* Neurtu. (Zuhaitz landare batetik besterako neurria) (ik. **Neurri**) (JBA, 2000-03-03)/ *Neurtzeko.* Neurtzeko. (JBA, 2000-03-03)/ *Neurtu in bear tzola.* Neurtu egin behar zuela. (JBA, 2002-07-27)/ *Kordelekin neurtuta.* Kordelekin neurtuta. (Mariaje UB-k entzama: JUA, 2003-12-12)

Neurtzaille, neurtzaillea: *iz.* Neurtzaillea./ *Neurtzaille orrek.* Neurtzaille horrek. (Altzariak egiteko etxeak neurtzen dituenaren gainean) (JBA, 2000-08-30)

Ni: *izord.* Ni./ *Ni.* Ni. (JUA, 2002-12-24)/ *Ortaz neetako.* Hortaz niretzako. (JUA, 1998-07-16)/ *Neretako.* Niretzako. (JBA, 2000-08-09)/ *Neretako're.* Niretzako ere. (JBA, 2000-04-06)/ *Netako.* Niretzako. (JUA, 2003-01-11)/ *Ni neuri.* Ni neuri. (JBA, 2008-06-21)

Nibel, nibela: *iz.* Nibela, maila./ *Nibel emateko.* Maila emateko. (Horma zuzenak egiteko soken gainean) (JBA, 2005-08-12)



► **NIKALOA.** Nikalo perretxikoak. (AA, 2008-11-08)

Níkalo, níkaloa: *iz. Bot.* Nikaloea, perretxiko mota./ *Nikalok* txizaren kolorea aldatzen omen dute. (JBA, 2008-10-08)

Níni, nínie: *iz.* Umea, ume hizkeran./ *Ninie.* Ninia. (Eskuetan hartutako katakume baten gainean) (JBA, 1999-10-23)/ *Ninie.* Ninia. (Ume hizkeran haurra esateko) (JBA, 2003-02-15)

Nóa: *adb.* Nora./ *Noa zoatz?* Nora zoaz? (JBA, 1998-08-01)/ *Nora.* Nora. (JUA, 1999-09-11)/ *Gu noa jun, beti ara.* Gu nora joan, beti hara. (Txakurraren gainean) (JUA, 2001-12-01)/ *Ni noa, bea ara.* Ni nora, bera hara. (Katuak nora jarraitzen dion adieraziz) (JBA, 2004-07-17)/ (aldaera **Nora**)

Noabait: (ik. **Noabaitt**)

Noabaitt: Norabait./ *Jun da noabaitt.* Joan

da norabait. (JUA, 1998-08-10)/ *Noabait jun al den.* Norabait joan al dun. (JBA, 2004-02-07)/ (aldaera **Noabait**)

Nóbio, nóbioa: *iz.* Mutil-laguna./ *Nobioa.* Mutil-laguna. (JBA, 2002-01-06)

NOBIOAÍÑ: *adb.* Nobioa egin, mutil-laguna aurkitu./ *Nobioa iñ, bilbotarren bat.* Nobioa egin, bilbotarren bat. (JBA, 2004-03-21)

Noiz: *adb.* Noiz./ *Noiz izango ote a oi?* Noiz izango ote da hori? (JBA, 2002-08-03)

NOIZEIK PEIÑETAN: *adb.* Noizean behinetan./ *Noizeik peiñetan.* Noizean behinetan. (JBA, 1999-08-03)/ *Noizibeñetan juten da.* Noizean behinetan joaten da. (JBA, 2001-07-14)/ *Noizik beñetan etortzen da.* Noizean behinetan etortzen da. (JBA, 2007-08-26)

NOIZKO BATEN: *adb.* Noizko batean, halako batean./ *Noizko baten irten zan.* Noizko batean irten zen. (JBA, 2001-12-01)

• *Emog.* **Noiz etorriko:** Noiz etorriko. Hitz hauekin, esamolde erako bat egiten du: *Noiz etorriko? Zapata ta gerriko.* (JUA, 2004-03-21)

Noizbait: *adb.* Noizbait./ *Irtengo dio noizbait.* Irtengo dio noizbait. (JBA, 2000-05-23)/ *Noizbaitt.* Noizbait. (JBA, 2007-09-22)/ (aldaera **Noizbaitt**)

Noizbaitt: (ik. **Noizbait**)

Noiznai: *adb.* Noiznahi./ *Noiznai.* Noiznahi. (JBA, 1999-04-24)

Nóla: *adb.* Nola./ *Nola ez ba?* Nola ez ba? (JBA, 2002-08-10)/ *Nola oittu, ala...* Nola ohitu, hala... (JBA, 2003-12-31)/ *Banekilla nola eon tzan.* Banekiela nola egon zen. (JBA, 2007-12-21)/ *Nola utzi leike ola?* Nola utzi liteke horrela? (JBA, 2007-05-12)

NOLA BATA, NOLA BESTEA: *Ze mimosok dien, nola bat ta bestea.* Ze mimosoak diren, nola bat eta bestea. (Txakurren gainean) (JBA, 2007-02-10)/ *Nola batek nola bestek irabazteko zea zeuken.* Nola batak nola besteak irabazteko zera zeukan. (Pilota partidari) (JBA, 2007-03-03)

NOLA O ALA: *adb.* Nola edo hala, nolabait./ *Irten due, nola o ala.* Irten dute, nola edo hala. (JBA, 2005-01-01)

Nolábaitt: *adb.* Nolabait./ *Nolabaitt.* Nolabait. (JUA, 2002-01-12)/ *"Bastante" nolabaitt.* Nahikoa nolabait. (Pertsona baten osasun egoera txarra adierazteko) (JBA, 2005-08-19)

Noláko, nolákoa: *izlag.* Nolakoa./ *Nolakoa dan'e.* Nolakoa den ere. (JUA, 2001-

11-17)/ *Nolako galesti zeren.* Nolako galesti zeuden. (JBA, 2002-01-19)

NOLAKO ONDO!: Nolako ongi!/ *Nolako ondo!* Nolako ongi! (JBA, 2001-10-27)/ *Nolako enpeiñun geo!* Nolako irrikaz gero! (JBA, 2002-08-10)/ *Nolako ederrak daren.* Nolako ederrak dauden. (JBA, 2004-09-18)

Nólatan: *adb.* Nolatan./ *Nolatan etorri zaa?* Nolatan etorri zara? (JBA, 1999-12-18)

Nóra: (ik. **Noa**)

Norbéera: *izord.* Norbera./ *Norbera.* Norbera. (JBA, 2000-02-05)/ *Norbera da lenengo.* Norbera da lehenengo. (JUA, 2003-11-25)

Normáldu: *ad.* Normaldu./ *Normaldu.* Normaldu. (JBA, 2003-08-16)

Notízi, notízie: *iz.* Berria, albiste./ *Notiziik.* Albisterik. (JBA, 2002-03-21)

Nun: *adb.* Non./ *Nun.* Non. (JBA)/ *Emen nun dan!* Hemen non den! (JBA, 2001-08-04)/ *Nundi noa.* Nondik nora. (JBA, 1999-04-17)/ *Nundi noa dabile ba gizon oi?* Nondik nora dabil ba gizon hori? (JUA, 2000-06-17)/ *Txakurre ez dakiau nundi noa ibiltzen dan.* Txakurra ez zakiagu nondik nora ibiltzen den. (JUA, 2002-09-14)/ *Ta nun da ba?* Eta non da ba? (JBA, 2004-01-17)/ *Nundi igota?* Nondik igota? (JBA, 2004-05-22)/ *Nun dien.* Non diren. (JBA, 2004-07-17)/ *Nundi noa dan.* Nondik nora den. (JBA, 2006-10-28)

Núnai: *adb.* Nonahi./ *Nunai.* Nonahi. (JBA, 2003-02-15)

Núnbait: (ik. **Nunbaitt**, bi adierak)

Núnbaitt: *I.* *adb.* Nonbait./ *Orrek'e nunbaitt ibili bear bizi ezkeo.* Horrek ere nonbait ibili behar bizi ezkeo. (Katuaren gainean esana) (JUA, 2000-10-21)/ *Nunbaitteti.* Nonbaitetik. (JBA, 1999-11-05)/ *Beste nunbaittutan.* Beste nonbaittutan. (JBA, 2002-01-12)/ *Nunbait.* Nonbait. (JBA, 2004-04-10)/ *Nunbaittetik.* Nonbaitetik. (JUA, 2004-08-10)/ *"Pues" nunbait bai.* Ba nonbait bai. (JBA, 2007-06-09)/ (aldaera **Nunbait**) *2.* *adb.* Itxuraz, ematen duenez./ *Aspertu in zien nunbaitt.* Aspertu egin ziren nonbait. (Esparru batetatik alde egin zuten ardi batzuen gainean) (JBA, 1998-09-12)/ *Arekin ibiltzen due, nunbaitt.* Harekin erabiltzen dute, nonbait. (JBA, 2000-06-17)/ *Geio zan nunbaitt.* Gehiago zen nonbait. (JBA, 2005-02-26)/ *Gosek eongo a nunbaitt.* Goseak egongo da nonbait. (Txakurra) (JBA, 2007-12-21)/ (aldaera **Nunbait**)